

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Done Jakue bideko kultur eta hizkuntza aniztasunari buruzko erakusketa Garesen dago ikusgai

*Vinculo Etxean ikus daiteke abuztuaren 31 bitarte*

Miércoles, 03 de agosto de 2011

Done Jakue Bideko kultur eta hizkuntza aniztasunari buruzko erakusketa ikusgai egongo da gaurtik aurrera Garesen. Erakusketa Vinculo Etxean aurkitzen da, kale Nagusiko 105. zenbakian, abuztuaren 31ra bitarte. Erakusketaren ordutegia ondorengo da: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, asteartetik ostiralera eta 11:00etatik 14:00etara, igandeetan. Astelehenetan instalazioak itxita egongo dira.



Erakusketaren diptikoa

Erakusketan hainbat informazio-panel daude; baita ere, jolas interaktibo bat, Done Jakue Bidean zehar dauden hizkuntza eta kultura ezberdinak ezagutzera emate aldera. Arreta berezia eskaini zaie eskualde mailako eta/edo eremu urriko hizkuntzei; hala nola, galiziera, euskara, aragoiera, okzitaniara (Frantzia hegoaldean, Arango haranean eta Piemonteko Alpeetako eremu batean (Italian) hitz egiten den hizkuntza erromanikoa), bretoiara (Frantziako ipar-mendebaldea), frisiera (Holandako eta Alemania ipar-mendebaldeko eremu batzuk) eta niederdeutsch (Alemaniako iparraldea) hizkuntzari. Dena den, gaztelera, alemana, frantsesa eta ingelesa ere sartu dira.

Erakusketa ibiltaria da, eta, Gares herrira iritsi aurretik, Iruñean eta Orreagan erakutsi da. Ondoren, Compostelako Done Jakuen (irailaren 5etik urriaren 24ra) eta Kiel-go Unibertsitatean, Alemanian, (urriaren 28tik abenduaren 22ra) ikus ahal izango da.

Ekimena eskualde-mailako hizkuntzen garapenaz arduratzen diren Europako sei erakundek bultzatu dute: Euskarabideak, Galiziako Xuntako Hizkuntza Politikako Idazkaritza Nagusiak, Britainiako Hizkuntzaren Bulegoak, Aragoar Filologiako Ikasketen Elkarteak, Kiel-go Christian-Albrechts Unibertsitateak (Alemania) eta Euroccat-ek (Okzitaniako eta Kataluniako herrialdeen 2000 Eurobiltzarra). Erakusketaren %50 Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kultura eremuko Agentzia Exekutiboak (EACEA) finantzatzen du.

Erakusketa Kulturen eta Hizkuntzen bidea izeneko europar proiektuaren barruan kokatzen da; proiektu horren helburua da Done Jakue Bideko hizkuntzek eta kulturek Europako ondareari egiten dioten ekarpena nabarmentzea. Arreta berezia eskaini zaie eskualde mailako edo eremu urriko hizkuntzei.

Ekimen horren esparruan, [www.santiagolanguages.com](http://www.santiagolanguages.com) eta [www.camino-eu.com](http://www.camino-eu.com) web orrialdeak sortu dira, Done Jakueko Bidearekin lotutako europar eskualde ezberdinetako historia kulturalaren inguruan.

Era berean, hiztegi txiki bat argitaratu da, aurrean aipatutako hizkuntzetan, Done Jakue Bidea egiten duten erromesentzat erabilgarriak izango diren adierazpenekin.